



**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA OHARRA

## **BGP-K ENERGIA AURREZKAILUAK JARRIKO DITU METRO BILBAOKO ESKAILERA MEKANIKOETAN**

- **Bizkaiko Garraio Partzuergoak lehiaketara aterako du aurrezteko lehen ekipo horiek hornitzeko aldaketa eta, haiei esker, egungo kontsumoa % 60raino murriztu ahalko da 17 eskaileretan banatutako 30 motor berriren bitartez.**
- **172.000 euroko aurrekontuarekin eta 6 hilabeteko egikaritze epearekin, urtean 8.000 eta 10.000 euro artean aurreztu ahalko da eskailera bakoitzeko, eta inbertsioaren itzulkina 10 hilabetekoa izango da**

Bilbon, 2016ko urriaren 28an

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (CTB) lehiaketara aterako du Metro Bilbaoko geltokietako eskailera mekanikoetan energia aurrezteko ekipoak hornitzeko eta jartzeko aldaketa. Zehazki, metroko 17 eskailera mekanikotan jarriko dira estreinakoz energia aurrezkailuak 30 motor berriren bidez; hala, egungo kontsumoa % 60raino murriztu ahalko da, 10.000 bat euro urtean eskailera bakoitzeko, eta inbertsioaren itzulkin tasa urtebeteko baino gutxiagokoa izango da. Indautxukoa hautatu da esperientzia pilotu hau aurrera eramateko, emaitza onuragarriak izan ditu, eta BGPk beste geltoki batzuetan apurka-apurka ezartzeko asmoa du.

Azken urteotan, Bizkaiko Garraio Partzuergoak, Metro Bilbaorekin batera, linean jarritako sistemetan zenbait jarduera egin ditu energia kontsumoa murrizteko asmoz. Geltoki batean gehien kontsumitzen duen sistema eskailera mekanikoarenak dira, lurpeko geltoki bateko kontsumo orokorraren % 50 baino gehiago. Horregatik, BGPk 172.000 euroko aurrekontua erabiliko du lehenengo energia aurrezkailu hauek sei hilabeteko epean hornitzeko eta jartzeko.

Metro Bilbaoko zenbait eskailera mekanikok, 2. linean batez ere, maiztasun erregulagailuak dituzte bidaiaririk ez badago energia aurreztu ahal izan dadin. Gainerakoak une honetan martxan/geldirik moduan programatuta daude, eskailerak bidaiariak antzematen dituen ala ez, horren arabera

Ekipo aurrezkailua duten eskailera mekanikoak etengabe funtzionatzen ari dira, hori da haien berezitasuna, gauean gelditu gabe; ekipo aurrezkailua ez dutenek, berriz, modu automatikoan funtzionatzen dute, eta gauean gelditu egiten dira. Indautxuko geltokiko Areilza doktoreko kanoiaren bi eskaileretan ekipo aurrezkailuak proba modura jarri ostean, handik ateratako ondorioen arabera, egungo energia kontsumoa batez beste % 60 inguru aurrezten da eskailera bakoitzeko, 8.000 eta 10.000 euro artean urtean, inbertsioaren batez bestekoa itzulkina 10 hilabetekoa izanik.



**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

Lehiaketa bidezko aldaketa egiten da etorkizunean Metro Bilbaoko eskailera mekaniko guztiak energia aurrezka horiek izan ditzaten; ez daude oraindik prest eskailera berezietan aplikatu ahal izateko (Sarriko, Indautxuko merkataritza gunea...).

### **Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) kontsumo elektrikoa murrizteko jarduerak**

Bizkaiko Garraio Partzuergoa eta Metro Bilbao ahalegin handia egiten ari dira azken urteetan kontsumo elektrikoa murriztu dadin. Hala, ildo horretatik jarduera asko egin dira, Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) diru laguntzak ere jaso dituzten jarduerak. Aipagarrienen artean, 2012-2013 urteetan Metro Bilbaoko Sopelako kotxetegiaren luminaria sistema aldatu eta arautu ziren 93.850 euroan, 11.500 euro EEEk diruz lagunduta. Halaber, Metro Bilbaoko lurpeko geltokietako eskailera mekanikoetan eta korridore ibiltarietan argiztapenaren teknologia aldatzeko obra egin zen; 85.000 euro inbertitu ziren lan horietan, 6.500 EEEk diruz lagunduta.

2015-2016 artean, Bizkaiko Garraio Partzuergoak eta Energiaren Euskal Erakundeak bide beretik jarraitu dute ekintza gehiago eginez: hodi fluoreszenteen ordez LED teknologia jarri da Metro Bilbaoko Moyua eta San Mames geltokietako nasen guneeetan eta kanoi eta mezzaninen zuzengunean, 87.550 euro guztira, eta 14.200 EEEk diruz lagunduta; Metro Bilbaoko Abandoko geltokiko 2. nasan azken belaunaldiko LEG teknologiaren bidez argiztapen sistema hornitu da, 17.300 euro guztira, eta 3.300 EEEk diruz lagunduta; eta Metro Bilbaoko Areetako geltokietako luminariak aldatu dira, 40.900 euro guztira, 9.000 EEEk diruz lagunduta.